



Osasuna eta Hizkuntza VI: Hizkuntza beharrak arreta soziosanitarioan



Aniztasunean bat: hizkuntza beharrak arreta soziosanitarioan.

06.Juil - 07.Juil 2023

Cod. 010-23

Modalité:

Cours en ligne en direct En personne

Édition

2023

Type d'activité

Cours d'été

Date

06.Juil - 07.Juil 2023

Location

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Langues

Basque

Reconnaissance officielle par l'État

20 heures

Comité d'organisation



Description

Mundu osoan ele eta kultura aniztasuna dira nagusi, 7.000 bat hizkuntza mintzatzen direlarik. Hizkuntza-aniztasuna gizadiaren berezko ezaugarritzat har daiteke. Hartara, ez da medikuntzarekin zerikusirik ez duen arloa edo hizkuntzalariei soilik dagokien jakintza-esparrua. Aitzitik, hizkuntza-aniztasunak bete-betean eragiten dio osasungintzari. Osasun arretaren helburua jendearen osasuna zaintzea delarik (bai norbanakoarena bai taldearena), pertsona edo jendarteak ulertzea ezinbestekoa da. Ingurune eleaniztun batean murgilduta, osasun arloan hizkuntza erronka globala dela esan daiteke, profesional eta erabiltzaileen arteko harremanei eragiten dielarik, izan etorkinak edo eremu urriko hizkuntza baten hiztunak.

Hizkuntzaren gaia arrunt ezberdina izan daiteke, tokian tokiko kultura, egitura politiko, ekonomiko eta hiztun-komunitatearen arabera. Hori horrela, aztergaia baldin bada hizkuntzak osasun arretan duen garrantzia eta, aldi berean, erronka horri aurre egitea, dagokion osasun sistemaren jatorria, izaera, balioak, ezaugarriak, antolakuntza eta egitura ezagutzea ezinbestekoa dela esan daiteke, plangintza eraginkorrak proposatu nahi badira. Ildo horretan adierazi den moduan, eskura dagoen ebidentzia askotarikoa da, sakabanatuta eta jatorri ezberdinetakoa. Horrenbestez, leku batean proposaturikoa ezin da beste eredu edo inguruetan nolanahi ezarri. Hauxe da, hain zuzen ere, 'Osasuna eta Hizkuntza' Uda Ikastaroetan azken urteotan landu duguna, Euskal Herriko eta nazioarteko adituek parte hartu dutelarik.

Herrialde askotan bai hiztun-komunitateek bai erabiltzaileek ez daukate inolako hizkuntza-eskubiderik, eta arreta sozio-sanitarioa hizkuntza nagusian soilik jasotzen dute. Beste hainbat lekutan lege-esparruak euren hizkuntza-eskubideak babes ditzake, baina sarri maila teorikoan edo erretorikoan. Badaude, egon, tokian-tokiko hizkuntza-politikak, hizkuntza-plangintzak eta arreta soziosanitariorako beren-beregizko ezarpen-programak, baina benetan eraginkorrak al dira? Azken urteetan sortu eta jaso den ebidentzia eguneroko jardunean egitate bilakatzen al da? Erabiltzaileen hizkuntza-beharak asetzen al dira?

Uda Ikastaro honetan mundu osoan proposatzen ari diren plangintzak aztertuko dira, hala nola euren ezarpena eta ebaluaketa, abiapuntua eta ardatza hizkuntza-beharrek izanik.

Hizkuntza-beharra hauxe litzateke: osasun jardueran, hau da, paziente orok osasun-prozesu osoan (etxean, osasun zentroan edo ospitalean; lehen mailako arretan zein espezializatuan), kalitatezko zerbitzua (onargarria, segurua, iriskorra, eraginkorra, ekitatezkoa eta sostengarria) jasotzeko behar duen hizkuntza zerbitzua, edo zehazkiago, osasun langileekiko eta erakundeekiko harremanetarako behar duen hizkuntza. Kontuan hartuta hizkuntza gaitasunak zein komunikaziorako beharrak aldakorrak izan daitezkeela bizitzan zehar edo osasun-egoeraren arabera, hizkuntza beharrak ez dira homogeneousak, norbanakoaren eta egoera klinikoaren araberrakoa baizik. Hizkuntza-behar horiei erantzun egokirik ez emateak kalteak eragin ditzake eta, beraz, zerbitzuaren kalitatea oztopatu. Horrenbestez, osasun langileen eta osasun erakundeen erantzukizuna litzateke behar horiek identifikatzea, hala nola dagokien erantzunik egokia ematea.

Aniztasunean bat, ezberdintasunak bilduz, hizkuntza-beharren kontzeptua unibertsala dela esan daiteke, baina beharbada ez homogeneousa. Nola norbanakoaren hizkuntza-beharrek aldakorrak diren, hala nazioartean. Horren adibide, segurtasun kulturalaren ereduak aipa daiteke: norberarena ez den kultura bateko paziente edo familia bati ematen zaion jardun eraginkorra, pertsona edo familia horrek zehaztutako beharren araberrakoa. Segurtasun kulturalaren ereduari jarraituz, pazientearen eskuduntza eta eskubidea litzateke bere hizkuntza beharrak zehaztea, batetik, eta bestetik bere beharrei erantzun egokia eman zaion edo ez egiaztatzea. Beste era batera esanda, osasun arretan gerta daitezkeen botere-harremanetan, nolabait, boterea erakundeetatik edo profesionaletatik pazientean kokatzea. Izan ere, botere-harremanak gakoak dira.

Hizkuntza-beharren ereduaren helburua kalitatezko osasun zerbitzuak eskaini eta ematea litzateke, ahalik eta osasun emaitzik hoberenak lortze aldera. Pertsonarengan ardazturiko osasun arretaren ereduarekin bat egiten du: pazienteen hizkuntza-beharrek antzematen ez badira esan daiteke ez dagoela pertsonarengan ardazturiko arretarik.

Hala eta guztiz ere, askotan gizarteak eta gobernuek zedarritzen dituzte legediak zein arauak, norbanakoaren beharren gainetik. Hau da; hizkuntza-beharrek, norbanakoaren eskuduntza eta eskubidea izan arren, botereak baldintzatuak izaten dira: egoera sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak. Hainbeste ezen pazientea bera ere sarritan ez da kontzientea hizkuntza-beharrek dituenik. Halaber, hizkuntza norbanakoaren arlo pribatuari dagokion eta garrantzirik gabeko aldagaia da osasun langile askorentzat eta erakunderentzat. Egoera hori aztertzea izango da 'Hizkuntza eta osasuna VI: hizkuntza-beharrek' Uda Ikastaroaren helburua. Hizkuntza-beharrei Euskal Herrian eta nazioartean ematen zaion arreta (ematen baldin bazaio) eta erantzuna. Osasun-arloko langileei, ikasleei, ikertzaileei

hala nola, soziolinguistiei, antropologoei, hizkuntzalariei eta hizkuntza-justizia zein eskubideen arloan interesa dutenei zuzenduta dago.

Gako-hitzak: hizkuntza-beharrak, hizkuntza-eskubideak, hizkuntza-politikak, hizkuntza-planak, ezarpena, ebaluaketa, botere-harremanak, segurtasun kulturala, pertsonengan ardazturiko arreta, justizia.

Objectifs

Osasun langileentzat eta erakundeentzat hizkuntza norbanakoaren arlo pribatuari dagokion eta garrantzirik gabeko aldagaia ote den aztertzea.

Hizkuntza-beharrei Euskal Herrian eta nazioartean ematen zaien arreta (ematen baldin bazaio) eta erantzuna aztertzea.

En collaboration avec



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Programme

06 07 2023

15:00 - 15:15	Erregistroa
15:15 - 15:30	Présentation par la Direction de l'activité Aitor Montes Lasarte Osakidetza - Famili medikua Jon Zarate Sesma UPV/EHU - Irakasle-ikertzailea
15:30 - 16:15	"Galesaren hizkuntza politika arreta soziosanitarioaren esparruan. Diskurtsoa eta errealitatea" Cynog Prys Bangor University - Irakasle-ikertzailea
16:15 - 17:00	"Hizkuntza-eskubideen eta beharren arteko harremana. Beharrak dira helburua eta eskubideak metodoa" Gerald Joseph Roche La Trobe University - Senior Research Fellow (Participer via le zoom)
17:00 - 17:45	Pause
17:45 - 18:30	Table ronde: "Hizkuntza-eskubideak ala hizkuntza-beharrak?" Jon Zarate Sesma UPV/EHU - Irakasle-ikertzailea (Modérateur) Arantza Lekuona Kabia - Gerentea Joseba Fernández de Retana Corres Osakidetza - Pediatra
18:30 - 19:15	"Erizaintza eta medikuntza ikasleen eta irakasleen ibilbidea gutxiengo egoeran. Galesko esperientzia " Awen Iorweth Cardiff University - Irakasle-ikertzailea

07 07 2023

09:30 - 10:15	"Hizkuntza justizia eta gaitasunen eredua" Nicole Marinaro Ulster University - Irakasle-ikertzailea
10:15 - 11:00	"Segurtasun Kulturalaren Esparrua " Elissa Elvidge University of Newcastle - Post-Doctoral Research Fellow (Participer via le zoom)
11:00 - 11:45	Pause
11:45 - 12:30	"Ezgaitasun intelektualak duten Down sindromedun pazienteei kalitatezko osasun arreta euskalduna eskainiz " Miren Altuna Azkargorta CITA-Alzheimer Fundazioa - Mediku neurologoa
12:30 - 13:15	"Hizkuntza-justizia, hizkuntza-aniztasuna eta gizarteratzea " Cecilia Gialdini Ulster University - Posdoctoral research

13:15 - 13:45

Table ronde: “Aniztasunean bat. Elkarrekin lan egiteko aukera”

Jon Zarate Sesma | UPV/EHU - Irakasle-ikertzailea (Modérateur)

Ainhoa Oñatibia Astibia | Gipuzkoako Farmazialarien Elkartea. FEUSE - Farmazialaria

Miren Altuna Azkargorta | CITA-Alzheimer Fundazioa - Mediku neurologoa

13:45 - 14:00

Synthèse

Directed by



Jon Zarate Sesma

UPV/EHU



Aitor Montes Lasarte

Osakidetza

Profesores



Miren Altuna Azkargorta

Fundación CITA-Alzheimer fundazioa



Elissa Elvidge



Joseba Fernández de Retana Corres

Osakidetza



Cecilia Gialdini



Awen Iorweth



Arantza Lekuona



Nicole Marinaro



Ainhoa Oñatibia Astibia



Cynog Prys



Gerald Joseph Roche

Tarifs inscription

PRESENCIAL	JUSQU'AU 31-05-2023	JUSQU'AU 06-07-2023
Tarif jeune	25,00 EUR	59,00 EUR
Général	-	84,00 EUR
Matrícula reducida general	-	71,00 EUR
Exención de matrícula	-	59,00 EUR
Cursos para Tod@s	-	71,00 EUR
La Salud, un Compromiso con las Personas	-	21,00 EUR
INVITADOS OSAKIDETZA	-	0 EUR
O10 Invitación	-	0 EUR
ONLINE EN DIRECTO	JUSQU'AU 31-05-2023	JUSQU'AU 06-07-2023
Tarif jeune	25,00 EUR	59,00 EUR
Général	-	84,00 EUR
Matrícula reducida general	-	71,00 EUR
Exención de matrícula	-	59,00 EUR
Cursos para Tod@s	-	71,00 EUR
La Salud, un Compromiso con las Personas	-	21,00 EUR
INVITADOS OSAKIDETZA	-	0 EUR
O10 Invitación	-	0 EUR

Lieu

Bizkaia